

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

3987

174/2021 DEKRETUA, uztailaren 6koa, zeinaren bidez urgentziako deklaratzeko baita Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, nahitaez desjabetzeko, honako proiektu hauek eragindako eskubide eta ondasunak okupatzea: Aiaran, «Aiarako (Araba) Markijanako Hondakin Uren Araztegiaren Aurreproiektua», eta Laudion, «Laudioko (Araba) Basaurbeko Hondakin Uren Araztegiaren Aurreproiektua».

2018ko maiatzaren 11n, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioiko Uraren zuzendari nagusiak erabaki zuen teknikoki onartzea «Aiarako (Araba) Markijanako Hondakin Uren Araztegiaren aurreproiektua» eta «Laudioko (Araba) Basaurbeko Hondakin Uren Araztegiaren aurreproiektua».

2021eko apirilaren 22an, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak honako hau erabaki zuen: nahitaezko desjabetze-espeditentea hastea Aiarako (Araba) Markijanako Hondakin Uren Araztegiko obrek eta Laudio (Araba) Basaurbeko Hondakin Uren Araztegiko obrek eragindako ondasun eta eskubideak okupatzeko, betiere inplizituki ulertuta berekin dakarrela deklaratzeko obrak onura publikokoak direla eta desjabetzea edo zortasunak ezartzea helburua duten lursailak eta eraikinak okupatu behar direla, Plan Hidrologiko Nazionalari buruzko uztailaren 5eko 10/2001 Legean eta Uren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, 91/271/EEE Zuzentaraua betetze aldera.

2021eko apirilaren 22an ere, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ondasunen eta eskubideen zerranda jendaurrean jartzea erabaki zuen, 15 eguneko epean, prentsan eta 2021eko maiatzaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (92. zk.) eta Arabako Aldizkari Ofizialean (51. zk.). Aldi berean, Eusko Jaurlaritzari proiektuak eragiten dituen eskubideak eta ondasunak okupatzeko urgentziaren adierazpena eskatzea erabaki zuen, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Urgentziaz okupatu beharreko ondasunak eta eskubideak espeditentean jasotako zerrendan zehaztuta eta banakatuta agertzen dira baita identifikazioak egiteko datu askirekin agertu ere. Zerranda hori jendaurrean jarri zen egoki zenean, eta hiru alegazio aurkeztu ziren, administrazio-espeditentean adierazten denez.

Zerbitzu teknikoek ikusi dutenez, ez dago espeditentea izapidetzeko inolako hirigintza-oztoporik.

Ondasun eta eskubide horiek okupatzea luzaezintzat jotzen da, honako arrazoi hauengatik:

Nerbioi Garaiko eskualdea eurrez aztertu da azken hogeita hamar urteetan, helburu hau izanik: eskualdeko hiri- eta industria-isurpenen saneamenduaren eta arazketaren konponbide hoberena definitu ahal izatea, eta konponbidea ematea Nerbioi ibaiaren urak duen kalitate-arazoari. Nerbioi ibaiaren arroaren saneamenduaren eskema-gidatzailea hartzeko prozesuak hamabost urtez gorako eztabaida izan du, behin betiko erabakia hartu arte.

1994ko maiatzaren 31n, lankidetzak akordioa sinatu zuten, obra hidraulikoen arloan, Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio eta Herrilan Sailak.

Aipatutako akordioari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoak honako konpromiso hau hartu zuen: behar ziren lursailak Ministerioaren eskura jartzea, Plan Hidrologiko Nazionalaren hainbat urtetarako programak 1994/2000ko denboraldirako jaso zituen lanak egiteko.

Zerga- eta administrazio-neurriei eta gizarte-neurriei buruzko abenduaren 30eko 42/1994 Legeak interes orokorrekotzat jo zituen «Nerbioi Garaia saneatzeko eta arazteko» obrak. Ondoren, jarduera hori Plan Hidrologiko Nazionalari buruzko uztailaren 5eko 10/2001 Legean jaso zen, hain zuzen lege horren II. eranskinean, Inbertsioen Zerrenda deiturikoan.

2018ko maiatzaren 11n, hainbat azterlan, plan, proiektu eta tramitazioen ondoren, Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Uraren zuzendari nagusiak honako hauek tekniki onartzea erabaki zuen: «Nerbioi ibaiaren goi-arroaren saneamendurako kolektore-proiektua. Laudio, Orozko, Aiara eta Amurrio udalerrietan (Araba eta Bizkaia)», «Aiarako (Araba) Markijanako Hondakin Uren Araztegiaren aurreproiektua» eta «Laudioko (Araba) Basaurbeko Hondakin Uren Araztegiaren aurreproiektua».

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak 2018ko uztailaren 3an emandako Aginduaren bidez, nahitaezko desjabetze-espeditetari hasiera eman zitzaion «Nerbioi ibaiaren goi-arroaren saneamendurako kolektore-proiektua. Laudio, Orozko, Aiara eta Amurrio udalerrietan (Araba eta Bizkaia)» proiektuak eragindako ondasun eta eskubideak okupatzeko.

Behin desjabetze-espeditetari hori izapidetuta, Ministerioaren esku jarri ziren kolektore horien lanak egiteko behar diren lursailak. Lan horiek 2020ko abuztuaz geroztik ari dira gauzatzen.

Beraz, Nerbioi Garaiko saneamendurako beharrezko diren jarduketak burutzeko, beharrezkoa da Markijanako (Aiara) eta Basaurbeko (Laudio) hondakin-uren araztegiaren eraikuntzari ekitea.

Ura-Uraren Euskal Agentziak ordainduko du desjabetze-jarduketaren kostu osoa. Lanen exekuzioa, ordea, Trantsizio Ekologikoaren Ministerioari dagokio.

Alde horretatik, Uraren Zuzendaritza Nagusiak bi kontratuak formalizatzei buruzko honako iragarki hauek argitaratu zituen Estatuko Aldizkari Ofizialean: 2020ko abenduaren 14an, Basaurbeko (Laudio) hondakin-uren araztegia handitzeko obren proiektua idaztea eta obrak egitea batera kontratatzei buruzkoa, eta 2021eko apirilaren 14an, Markijanako (Aiara) hondakin-uren araztegiaren proiektua idaztea eta obrak egitea batera kontratatzei buruzkoa.

Eskubideak eta ondasunak urgentziaz okupatzeko adierazpena beharrezkotzat jotzen da espeditetari honetan aurreikusitako hondakin-uren bi araztegi horiek eraikitzeke; eta, horrela, hiriko hondakin-urak tratatzei buruzko 91/271/EEE Zuzentarauak ezarritako epeak beteko dira. Zuzentarau horrek ezartzen du kide diren estatuek beharrezko neurriak hartuko dituztela, horrelako urak isuri aurretik behar bezala tratatzen direla bermatzeko; horrela isurketa desegokiak saihestuko dira Nerbioi Garaian.

Hondakin-uren bi araztegi horietako obrak gauzatzeak eragiten dituen ondasunen eta eskubideen urgentziazko okupazioari esker, Aiarako eskualdearen ingurumen-arazoei konponbidea emateko behar diren azpiegituren eraikuntzarekin jarraitu ahal izango da. Horrek Nerbioi ibaiaren egoera ekologiko egokia berreskuratzea ahalbidetuko du. Bertan, egun, beharrezko arazketarik gabe egiten dira 35.000 pertsonaz osatutako biztanleriaren isurketak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26.1.f artikuluan xedatzen denez, Eusko Jaurlaritzari dagokio nahitaez desjabetu beharreko ondasunak eta eskubideak urgentziaz okupatu behar direla deklaratzeko, nahitaezko desjabetzeak honako hauek hartzen dituenen: burutze-unitate osoak, lurraldearen hirigintza-antolaketari

2021eko uztailaren 14a, asteazkena

dagozkion sistema orokorrak edo antolaketa horren elementuren bat eta hiri-lurzoruan egin beharreko banakako jarduketak. Goian aipatutako lege horrek 26.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, lurralde-antolamenduaren eskumenak dituen sailburuari dagokio horretarako proposamena aurkeztea Jaurlaritzaren Kontseiluari.

Hori dela eta, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposaturik, Gobernu Kontseiluak, 2021eko uztailaren 6ko bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzko Legearen 26. artikuluan xedatutakoari jarraituz, deklaratzeko da Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak urgentziaz okupatu beharrekoak direla «Aiarako (Araba) Markijanako Hondakin Uren Araztegiaren Aurreproiektua» eta «Laudioko (Araba) Basaurbeko Hondakin Uren Araztegiaren Aurreproiektua» burutzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak, nahitaez desjabetzeko. Berariaz hasarazitako espedientean jasotako zerrendan daude zehaztu eta banakatuta ondasun eta eskubide horiek.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aurretiaz berraztertze-errekurtsoa jar dakioko Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Epeok, dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 6an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.